

Aditzetiko izenen azterketa morfopragmatikoa euskarazko corpus akademiko batean

Proposer(s) / Proposatzailea(k)

Igone Zabala

Contact / Kontaktua: email

igone.zabala@ehu.eus

Description / Deskribapena

Corpus akademikoak erabilienetakoak dira corpus-hizkuntzalaritzako lanetan aukera ugari ematen baituzte erregistro horien bereizgarriak deskribatzeko askotariko aplikazioei begira: terminologia, fraseologia edota errutina diskurtsibo espezializatuak biltzen dituzten datu-baseak, edota erregistro espezializatuen irakaskuntzarako materialak prestatzeari begira (Biber, 1988, 1994, 2006;. Parodi 2005, 2007, Flowerdew 2004) beste askoren artean). Edozein hizkuntzak komunikazio-tresna egokia izateko garatuta izan behar ditu askotariko erregistroak. Erregistro esaten diogu komunikazio-egoera jakin batekin lotuta hitzunek hautatzen dituzten hizkuntza-baliabideen multzoari. Askotan, erregistro baten bereizgarria ez da beste erregistroetan erabiltzen ez den baliabide bat erabiltzea, baizik eta baliabide jakin bat beste erregistroetan ez bezalako maiztasunaz ustiatzea. Adibidez, diskurtso orokorrekin alderatuta, diskurtso akademikoen ezaugarri nabarmen bat da aditzetiko izenen ustiapena. Hau ez da harrizkoa, aditzetiko izenek aise betetzen baitute komunikazio-egoera espezializatueta sortzen den denominazio beharra (Zabala 2007). Izan ere, diskurtso akademikoen xede nagusia da jakintza garatzea edota finkatutako jakintza transmititzea. Nominalizazioa funtsezko eragiketa da jakintza eraikitzea eta transmititzea helburu duten genero horietan: nominalizazioaren bitartez lortzen den trinkotze eta abstrakzioari esker, kontzeptu konplexuak objektuak bailiran trata daitezke diskurtsoan (Iturrioz, 2000): izenak, aditzak ez bezala, kategoria itxiak dira eta posible egiten dute kontzeptuak elementu lexiko trinkoetan enkapsulatzea. Horrela, izenek eskaintzen dizkigute jakintza-esparru desberdinetako komunitate epistemiko-diskurtsiboek jakintza partekatzeko eta garatzeko behar dituzten denominazioak (Zabala eta Elordui, 2006; Zabala, 2007, Zabala eta Elordui 2010).

Aditzetiko izenak sortzeko atzizkien ustiapen bereizgarria erakutsi dute jakintza-alor desberdinetako corpusak alderatu dituzten ikerketek (Gallegos 2000, 2003, (Cademártori et al., 2006 eta Guz, 2009, besteak beste). Euskararako ere antzeko joerak deskribatu dira zenbait lanetan (Lersundi et al. 2008, San Martín et al. 2010, besteak beste). Hala ere, testu akademikoetan erabiltzen diren aditzetiko izen ugari oharkabean pasatzen dira, hiztegieta jasotzen ez direlako eta, larriago dena, askotanitsu-itsuan zuzentzen dira osatzen duten sistemari erreparatu gabe (Lersundi et al. 2008, Zabala eta Elordui 2010).

Aditzetiko izenak sortzeko atzizkien azterketa morfopragmatiko sakona egitea funtsezkoa da euskararen erregistro akademikoen garapenari lagunduko dioten oinarri teorikoak eta aplikazioak garatzeari begira.

Goals / Helburuak

Lan honen helburua da aditzetiko izenak sortzeko euskarak erabiltzen dituen atzizkien banaketa morfopragmatikoa eta emankortasuna aztertzea Garaterm corpus akademikoaren jakintza-alorretan zehar, joera morfopragmatikoak aurkizeari begira.

Requirements / Betebeharrak

Lan hau aurrera eramateko euskara jakitea ezinbesteko baldintza da, automatikoki lortuko diren datuak

garbitzeko ezinbestekoa baita adibide zuzenak eta okerrak bereizi ahal izatea, bai eta horietako bakoitzak diskurtsoan betetzen dituen funtzioak aztertzeko gauza izatea ere.

Framework / Esparrua

Corpus-hizkuntzalaritza: erregistro akademikoen garapena

Tasks and plan / Atzak eta plana

1. Garaterm copusaren barruan azterketarako erabiliko diren azpicorpusak definitzea
2. Aditzetiko izenak, haien maiztasunak eta agerraldiak erauzteko estrategiak eta baliabideak definitzea
3. Aditzetiko izenen zerrendak eta estatistikak erauzteak
4. Estatistikak lantzea ondorioak lortzeari begira